


Euskal AEko industria-jarduerak % 7,9 egin du behera 2020ko urrian

Aurreko hilarekin –2020ko iraila– alderatuta, industria-produkzioaren indizeak % 0,6 egin du gora

Euskal AEko industria-produkzioak % 7,9 egin zuen behera 2020ko urrian, aurreko urteko hil beraren aldean, lan-egutegiko baldintza homogeneoetan, Eustatek prestatutako datuen arabera; zortzigarren hilez erregistratu ditu tasa negatiboak.

2020ko urria urte bereko irailarekin alderatuta, Euskal AEko industria-produkzioak % 0,6 egin du gora, urtarotako ondorioak zuzendu ondoren.

2020ko lehen hamar hilen balantzearen itxieran industria-jardueraren uzkurdua metatua % 14,6koa izan da.



2020ko urriko indizearen bilakaera 2019ko urrikoaren aldean negatiboa izan da industria-sektore handi guztietan. *Energiak* % 26,8 egin du behera, eta bertan sartzen dira, besteak beste, energia elektrikoaren hornidura eta petrolio-fintzea.

Urte arteko % 6,8ko beherakada izan dute bai *Tarteko ondasunek* –haien artean daude metalurgia eta produktu metalikoen fabrikazioa, industria kimikoa eta kautxuzko eta plastikozko produktuen fabrikazioa– bai *Kontsumo-ondasunek* oro har. Azken horien artean, % 7,5 egin dute behera *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrek*, eta *Kontsumo-ondasun iraunkorrek*, % 3,7. Honako hauek dira, besteak beste, *Kontsumo-ondasun*

ez-iraunkorren sektore handiaren barruan sartzen diren jarduerak: elikagaien fabrikazioa, prozesatua eta kontserbazioa; garbitasunerako eta higienarako produktuen fabrikazioa, eta janzteko arropen jantzigintza. *Kontsumo-ondasun iraunkorren* epigrafean, bestalde, altzarien eta etxeko aparatuen fabrikazioaren jarduerak daude.

Azkenik, *Ekipo-ondasunek* % 5,0 egin dute behera. Haien artean honako hauek nabarmendu behar dira: motordun ibilgailuen fabrikazioa; lokomotorren eta trenbide-materialaren eraikuntza, eta eraikuntza aeronautikoa edo ontzigintza.

Hilen arteko aldaketen artean –2020ko urria 2020ko irailaren aldean–, hainbat motatako aldaketak daude industria-sektore handietan, urtarotako ondorioak zuzendu ondoren. Tasa positiboak ikusi dira *Ekipo-ondasunetan* (% 2,3) eta *Tarteko ondasunetan* (% 0,4). Ordea, *Kontsumo-ondasunetan*, oro har, % 1,1 gutxitu da ekoizpena, *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrek* % 2,5 egin baitute behera, eta *Kontsumo-ondasun iraunkorrek* % 5,9 egin baitute gora. *Energiak*, azkenik, % 0,5 egin du behera.

Euskal AEko Industria-produkzioaren indizea. Hazkunde-tasak. Behin-behineko datuak. 2020ko Urria

	Egutegiaren eragina zuzendutako datuak		Datu desestazonalizatuak	
	Urr2020 / Urr2019	A(Urr2020) / A(Urr2019)(*)	Urr2020 / Ira2020	Ira2020 / Abu2020
Indize orokorra				
Euskal AE	-7,9	-14,6	0,6	2,1
Araba/Álava	-2,6	-14,4	0,9	4,4
Bizkaia	-13,5	-16,9	1,7	1,5
Gipuzkoa	-5,3	-12,2	-0,6	1,2
ONDASUNEN HELBURU EKONOMIKOAREN ARABERAKO INDIZEAK				
Kontsumo-ondasunak	-6,8	-7,3	-1,1	2,0
Kontsumo-ondasun iraunkorrak	-3,7	-15,4	5,9	3,6
Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	-7,5	-5,4	-2,5	1,7
Ekipo-ondasunak	-5,0	-14,0	2,3	6,3
Bitarteko ondasunak	-6,8	-17,5	0,4	1,0
Energia	-26,8	-11,5	-0,5	-7,1

(*) 2020ko urtariletik oraingo hilera arte metatutako urte arteko aldaketa-tasa, 2019eko aldi beraren aldean

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Maila bereiziagoan, euskal industrian pisurik gehien duten sektoreen artean, 2020ko urrian urte arteko aldaketetan portaera positiboa izan duen bakarra *Kautxua eta plastikoa* izan da, % 0,5 egin baitu gora ekoizpenean. Ordea, beherakada handiena erregistratu duten pisu gehieneko sektoreak honako hauek izan dira: *Energia elektrikoa, gasa eta lurrina* (% 26,3 behera); *Metalurgia eta produktu metalikoak* (% 11,6 behera) eta *Makinak eta ekipoa* (% 5,6 behera), egutegi-ondorioak zuzendu ondoren.

Euskal AEko Industria-produkzioaren indizea. Sektore nagusiak. Urte arteko hazkunde-tasak. A-38 sektorizazioa. Behin-behineko datuak

	m / m-12
A38 SEKTORIZAZIOA	
SEKTORE NAGUSIAK⁽¹⁾	
10 - Metalurgia eta produktu metalikoak	-11,6
16 - Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	-26,3
09 - Kautxua eta plastikoak	0,5
13 - Makineria eta tresneria	-5,6
14 - Garraio-materiala	-2,8
03 - Elikaduraren, edarien eta tabakoen industriak	-3,7
12 - Material eta tresneria elektrikoa	-3,5
05 - Zurgintza, papera eta arte grafikoak	-5,1

Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

(1) Euskal Aeko industrian pisurik handiena duten sektoreak

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Lurralde historikoen arabera, urrian industria-ekoizpenaren indizearen urte arteko bilakaera negatiboa izan da hiru lurraldeetan. Hala, Bizkaian % 13,5 egin du atzera (batik bat sektore energetikoaren portaerak izan du eragina horretan); Gipuzkoan, % 5,3, eta, azkenik, Araban, % 2,6.

Hilen arteko terminoetan, 2020ko urria 2020ko irailaren aldean, eta urtaroengatik ondorioak atera ondoren, honako hau ikusi da: Bizkaian ekoizpenak % 1,7 egin du gora; Araban, % 0,9, eta, Gipuzkoan, % 0,6 behera.

INFORMAZIO-OHARRA

Egutegiaren eta serieen desestazionalizazioaren eraginak zuzentzeko erabilitako ereduak COVID-19ak aztertutako aldagaien gainean izandako eragina jaso dute, Europar Batasuneko Bulego Estatistikoak (Eurostat) [Guidance on Time Series Treatment in the context of the COVID-19 crisis](#) ohar metodologikoan emandako gomendioei jarraikiz.

Eustat-ek eskerrak eman nahi dizkie elkarlanean jardun duten establezimendu guztiei, egin duten ahaleginagatik, egoerak ezohikoak izan badira ere. Haiei esker, urriko indizea laginaren **% 93,96**ko estaldurarekin kalkulatu da –haren informazioa azaroan jaso da–.

Argibide gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa Zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62